

ESKORIATZAKO OLAZAR JUBILATUEN TABERNA-ARETOA MODU PRIBATIBOAN ERABILI ETA USTIATZEKO JABARI PUBLIKOAREN EMAKIDA ARAUTU BEHAR DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN HELBURUA.

Baldintza agiri honetan oinarrituta egiten den kontratuaren xedea izango da ESKORIATZAKO OLAZAR JUBILATUEN TABERNA-ARETOA, Udalaren titulartasuneko higiezia, modu pribatiboan erabiltzeko eta ustiatzeko administrazio-emakida, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz. Emakida hori baldintza administratiboen agiriaren, baldintza teknikoaren agiriaren eta espedientean agertzen den dokumentazio teknikoaren arabera gauzatuko da, kontratu izaera izango dutenak.

Emakidaduna arduratuko da, gainera, taberna-aretoko zerbitzurako zuzenean erabiltzen diren instalazioak eta tresnak garbitzeaz, Jubilatuen Etxeko atezaintza-zerbitzua emateaz, karta jokurako aretoa garbitzeaz, eta eraikinaren beheko solairuan, jubilatuen etxeko tabernaren ondoan, dauden komunak garbitzeaz, jendearentzat irekita egon beharko direnak 11:00etatik 22:00etara.

Kontratuaren helburuari dagokion CPV nomenklaturaren kodifikazioa: 55330000-2 kafetegi-zerbitzuak.

2.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Agiri honetan oinarrituta egiten den kontratua jabari publikoko ondasun baten erabilera pribatiborako administrazio-emakidatzat hartuko da, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Honako agiri eta arau juridiko hauek arautzen dute emakida hori:

- Baldintza agiri hau eta baldintza teknikoaren agiria, bere plano eta eranskinekin.
- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.
- 1373/2009 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, lehen aipatutako azaroaren 3ko 33/2003 Legearen erregelamendua onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Erregelamendua Orokorra onartzen duena eta 773/2015, abuztuaren 28koa, aipatutako erregelamenduko zenbait arau aldatzen duena.
- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki erakundeen ondasunei buruzko araudia onartzen duena.
- Zuzenbide pribatuko araudia, ordezkotza gisa jardun behar baitu administrazio-kontratazioari buruzko xedapenak edo administrazio-zuzenbidearen arau orokorrak aplikatuz ebatzi ezin diren gaietan.

Administrazio baldintza partikularren agiri honen eta espedienteari lotutako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan xedatutakoa nagusituko da.

Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa aplikatuko dira kontratuaren interpretazioak, ondorioak, betetzeak eta azkentzeak sor ditzaketen arazoak erabakitzeko, baldin eta aipatutako xedapenetatik ondorioztatu ezin badira; nolahi ere, zuzenbide pribatuko arauen aplikazioa ezin izango da egin Administrazioaren prerrogatibak ahaztuta.



3.- KONTRATAZIO ORGANOA.

SPKLren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio honetarako eskumena Alkateari dagokio.

Organo horrek dagokion administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du, eta, ondorioz, kontratua interpretatzeko, kontratua gauzatzeak sor ditzakeen zalantzak erabakitze, kontratua aldatzeko eta kontratua suntsiaraztea erabakitze prerrogatibak ditu, aplikatu beharreko araudiari jarraiki. Horri buruz ematen dituen erabakiak betearazleak izango dira, emakidadunak jurisdikzio eskudunean aurkaratzeko duen eskubideari kalterik egin gabe.

4.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio prozedura honetan, baldin eta beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatze debekuren bat ez badute.

Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izan ahal izango dira soil-soilik baldin eta beren estatutuen edo sortze-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan sartzen badira prestazioak, eta kontratua behar bezala gauzatze behar beste elementu pertsonal eta material izango dituen antolaketa izan beharko dute.

Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Prozedura izapidetzen ari den bitartean, eta esleipena egin aurretik, lizitatzailaren nortasun juridikoa azkentzen bada haren enpresa-ondarea batu, zatitu edo eskualdatu delako, prozeduran haren lekua hartuko du sozietate xurgatzaileak, bat-egitearen ondoriozko sozietateak, zatiketaren onuradunak edo ondarearen eskuratzailak, baldin eta horretarako gaitasun-baldintzak betetzen baditu eta kontratatze debekurik ez badu, eta esleipen-prozeduran parte hartzeko baldintza-agiri honetan eskatutako baldintzetan sailkapena eta/edo kaudimena egiaztatzen badu.

Kontratatze gaitasuna eta kaudimena emakidadunak bakarrik egiaztatuko ditu.

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA EGIKARITZE EPEA.

Emakida LAU urterako izango da, administrazio-agirian formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta emakida automatikoki amaituko da, gerora inolako errekerimendurik edo iraungitze-adierazpenik egin beharrik gabe.

Behin epea amaituta, Eskoriatzako Udalari doan itzuliko zaizkio emandako ondasunaren jabari osoa eta egindako obrak, eraikuntzak eta instalazioak.

Emakida azkentzearen ondorioz itzulketa gertatzen denean, automatikoki iraungiko dira hirugarrenek emakidaren eta obra eta instalazioen gainean izan ditzaketen eskubide errealak edo pertsonalak. Beraz, emakidadunak Eskoriatzako Udalari entregatu beharko dio higiezia, zamarik eta kargarik gabe, eta emakidadunak eskubidea izango du, adierazten zaion epean eta bere kontura, baldintza teknikoan agiriko 1. eranskinean jasota ez dauden bere jabetzako materialak, ekipak eta instalazioak eta, oro har, inbentarioan lokalaren eta bere instalazioen berezko gisa sartuta ez dauden elementu ez-finkoak kentzeko. Jabari publikoa lehengo egoerara aldatu beharko du, obra eta instalazioetan egindako hobekuntzei eutsiz, eta espazioa egoera onean eta garbi utzita. Betebehar hori betetzearen akta egingo da, eta bertan jasoko da okupatutako jabari publikoaren egoera.

6.- ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA KANONA.

6.1.- Emakidadunak zerbitzuaren ustiapenetik lortzen dituen diru-sarrerak jasoko ditu kontraprestazio gisa, eta horien tarifak urtero onartuko ditu Eskoriatzako Udalak.



Tabernaren ustiapenaren emaitza ekonomikoak emakidadunaren arrisku eta menturakoak izango dira.

Eskoriatzako Udalak ez du bere gain hartuko esleipendunak bere hornitzaileei ez ordaintzearen erantzukizuna, ezta instalazioetan izan daitezkeen narriadura edo lapurretena ere.

6.2.- Hilean 41,32 euroko + % 21 BEZari dagokion 8,68 euroko kanona ezartzen da, lizitatzailerik hobetu ahal izango dutena.

Lizitatzailerik kopuru hori hobetu ahal izango du bere proposamen ekonomikoan. Hilabete bakoitzeko lehenengo bost egunen barruan ordainduko da. Ordainketa Udalak horretarako zehazten duen kontu-zenbakian egingo da. Kanona zuzenbide publikoko sarrera da. Adierazitako epean kanona ordaintzen ez bada, diru-bilketari buruzko araudian aurreikusitako errekarguak sortuko dira, eta dagozkion interesak ordaindu beharko dira. Halaber, emakida eten egingo da eta dagozkion administrazio zehapenak ezarriko dira, agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Kanona ez da berraztertuko.

7.- BERMEAK.

Emakidun izateko proposatutakoak, 600 euroko bermea eratu beharko du 10 egun balioduneko epean, horretarako errekerimendua egiten zaion biharamunetik kontatzen hasita.

Bermea SPKLren 108.1. artikuluan ezarritako bideetako edozeinetan eratu ahal izango da.

Bermea eskudirutan eratuz gero, bermearen zenbatekoa kontu korrante hauetako batean sartuko da, eta abonu-agiriaren kopia bat Diruzaintzan entregatuko da, bermea itzultzeko kontu korrante bateko zenbakiarekin batera.

KUTXABANK	ES44 2095 4408 5910 6002 4634
CAJA LABORAL	ES68 3035 0044 85 0440900025
BANCO SANTANDER	ES80 0049 0721 56 2010201821

Berme-epea amaitzen denean, emakidadunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako SPKLren 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik izango da.

II.- EMAKIDA ESLEITZEA

8.- ESLEIPEN PROZEDURA

Emakida hau prozedura ireki bidez esleituko da, eta edonor aurkeztu ahal izango da. Administrazioak erabateko ahalmena izango du emakida eskaintzarik onuragarrienari esleitzeko. Era berean, lizitazioa eman gabe utzi ahal izango du.

- Aurkeztutako eskaintzak baloratzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

8.1. Formula bidez ebaluatzeko irizpideak: 60 puntu.

- Kanonari buruzko proposamen ekonomikoa: 10 puntura arte 10 puntu emango zaizkio hileko kanon altuena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzeko formula hau erabiliko da: lizitatzaileraren eskaintza zati eskaintza altuena bider 10.



$$LP = LE/EA \times 10$$

Honako hauek izanik:

LP: lizitatzaillearen puntuazioa

EA: eskaintza altuena

LE: lizitatzaillearen eskaintza

Eskaintza ekonomikoa baloratzeko, BEZik gabeko prezioa hartuko da kontuan. Halaber, lizitatzailleak aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du.

- Lan esperientzia: gehienez ere 20 puntura arte. Ostalaritzako enpresa batean Gizarte Segurantzari alta emanda frogatu beharko da (lan-bizitza aurkeztu): 10 puntu urte oso bakoitzeko. Urte osorik ez bada, dagokion proportzioa.
- Lan egoera-adina: 11 puntura arte. Lanbideko altarekin egiaztatu beharrekoa:
 - 1 puntu langabeziko 3 hilabete bakoitzeko, gehienez ere 8 puntu.
 - 2 puntu eskatzailea langabezian egoteaz gain, 45 urte baino gehiago baldin baditu.
 - Puntu 1, eskatzaileak kontratuaren jarduerarekin bateragarria den desgaitasunen bat badu eta horrek ez badu eragozten jarduera behar bezala gauzatzea.

— Familia-kargak: 6 puntu gehienez, 3 puntu 20 urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko, baldin eta familiaren etxean errolatuta badago eta lanik gabe eta prestaziorik jasotzen ez badu (langabezia-txartela aurkeztu). Ez dira kontuan hartuko ezkontideetako bat lanean ari den familia-unitateak.

— Hizkuntza normalkuntza: 8 puntu, kontratu honen xede den zerbitzura, Europako Erreferentzia Markoaren ahozko B2 euskara-maila edo altuagoa duten pertsonak atxikitzeagatik, herritarrekin harreman zuzena izango duten eginkizunetan (4 puntu pertsona bakoitzeko; guztira, gehienez, 8 puntu).

Puntuak lortzeko, lizitatzailleak bere eskaintza aurkeztu beharko du C gutun-azalean, II. eranskinean jasotako ereduaren arabera; eta horrekin batera, pertsona horien euskararen ezagutza-mailaren ziurtagiria edo tituluaren kopia. Bajak, oporrak eta abar direla-eta langile horiek ordezkatzuz gero, egindako eskaintza betez bete beharko dira ordezkapen horiek, balorazioa egiterakoan horren arabera puntuatzen baita.

— Genero ikuspegia kontratazioan: 5 puntu. Norbait kontratu behar izanez gero, eta genero arrakala egon, emakume bat kontratatzeako konpromisoa.

8.2. Formula bidez ebaluatu ezin diren irizpideak: 40 puntu.

- Bezeroak erakartzeko jarduera erakargarriak programatzeagatik (Olentzero, errege eguna, txokolatadak, askariak edo antzekoak). 2 puntu jarduera bakoitzeko. 10 puntura arte.
- Zerbitzua ematea: Gehienez ere 30 puntura arte. Egin beharreko lanak deskribatzen dituen memoria, hobetzeko proposamenak, etab. (Jubilatuaren Etxeko Batzordearekin antolatutako jarduerekin koordinatuta, etab.).

Txosten tekniko deskribatzaile bat aurkeztu beharko da, eta, bertan, baldintza teknikoaren agiriko 3., 4., 5. eta 6. puntuetan adierazitako zerbitzuen proposamena eta deskribapena azalduko dira:

- Taberna zerbitzua.
- Komun publikoak eta karta-aretoa garbitzea.
- Giltzen kudeaketa.



- Jubilatuen etxearen irekiera eta itxiera.

Memoriak honako hauek jaso beharko ditu:

- a) Lizitatzaillearen, erakundearen antolamendua.
- b) Lan plana.
- c) Giza baliabideak.
- d) Erantzukizunen banaketa langileen artean.
- e) Langileek egin beharreko lanak.
- f) Ordutegia eta egutegia.
- g) Emakidadunaren eta Udalaren (Gizarte Zerbitzuak) arteko koordinazioa.
- h) Lizitatzaillearen eta pentsiodunen eta Olazarreko zuzendaritza-batzordearen arteko komunikazioa.
- i) Euskararen normalizazioan eragina duten hobekuntzak: musika euskalduna jartzea, ETB1 jartzea...
- j) Taberna-aretoa eta komunak garbitzeko egutegia erantsi. IV. eranskina.

Item bakoitzak 3 puntuko balioa izango du.

9. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Kontratazio honen espedientea eta horri lotutako dokumentazio teknikoa udal honetako Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aztertu ahal izango da, bulegoak irekita dauden orduetan, lizitazio-iragarkia Eskoriatzako Udalaren Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

OHARRA: Lizititzen dutenek Olazar Jubilatuen Etxeko taberna bisitatu ahal izango dute beraiek ebaluatu ahal izateko. Bisita bakarra egin ahal izango da, Gizarte Zerbitzuetako udal langileekin hitzartuta, zerbitzu horrek baitu tabernaren ardura (harremanetarako: agurtzane@eskoriatza.eus).

Era berean, Eskoriatzako Udalaren Kontratatzailearen Profilearen bidez sartu ahal izango da kontrataziora, eta bertan eskuratu horri atxikitako dokumentazio teknikoa, baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria, lizitazio-iragarkia Eskoriatzako Udalaren Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Kontratazio unitatearekin harremanetan jartzeko:

ESKORIATZAKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

Fernando Eskoriatza plaza z/g –20540 ESKORIATZA

Tel.: 943 714407

E-posta: agurtzane@eskoriatza.eus

Kontratistaren Profila: www.eskoriatza.eus

Proposamenak Eskoriatzako Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (H@ZI) (Fernando Eskoriatza Plaza z/g) aurkeztu ahal izango dira, edo telematikoki udal honetako kontratatzailearen profilearen egoitza elektronikoa, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoena: www.eskoriatza.eus. Leku horretan eskuratu ahal izango dira ere baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria.

Proposamenak 15 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, lizitazio iragarkia Eskoriatzako Udalaren Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna izanez gero, epea hurrengo egun baliodunera luzatuko da.



Proposamenak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

Lizitatzaille bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Banaka proposamenik egin baldin bada, ezingo da inolako proposamenik egin beste batzuekin aldi baterako elkarte sortuta. Aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan ere ezin izango da parte hartu.

Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruz lizitatzailleek eskatutako informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egun baino lehenago emango zaie, betiere, eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

10.- PROPOSAMENEN EDUKIA.

Lizitatzailleek HIRU GUTUN-AZAL ITXI (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte, lizitatzailleak berak sinatuta eta jakinarazpenetarako helbidea adierazita. Gutun-azalaren izena eta legenda hauek jasoko dira gutun-azalean: "ESKORIATZAKO OLAZAR JUBILATUEN TABERNA-ARETOA MODU PRIVATIBOAN ERABILI ETA USTIATZEKO JABARI PUBLIKOAREN EMAKIDARAKO PROPOSAMENA".

Gutun-azalen izena honakoa izango da:

1.- "A" GUTUN-AZALA, "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" izenekoa, honako hauek izango dituen:

- Erantzukizunpeko adierazpena, I. eranskineko ereduaren arabera.

Hainbat enpresari aldi baterako batuketan elkartuta aurkezten badira, enpresa bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, kasu horietarako Europako Kontratazio Agiri Bakarraren -EKAB- formularioan eskatutako informazioa jaso beharko duena.

Gainera, aldi baterako batuketan parte hartzen duten enpresariak batuketa hori eratzeko hartzen duten konpromisoa ere aurkeztu beharko da, 2017ko SPKLren 69. artikulua 3. idatz-zatian eskatutakoaren arabera.

- Prestazioa baldintza agiri administratiboetan eta teknikoetan ezarritako hizkuntza betebeharren arabera gauzatuko dela adierazten duen "Hizkuntza arloko konpromiso arduratsua", III. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

2.- "B" GUTUN-AZALA, "MEMORIA TEKNIKOA" izenekoa eta ondorengo dokumentuak izango dituen: baldintza agiri honetako 8.2 puntuan adierazitako esleipen irizpideak betetzen dituela egiaztatze dokumentuak.

Eskaintzaren alderdiak agiri honetan aipatutako esleipen-irizpideen arabera baloratzeko lizitatzailleak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia sartuko da.

IV. eranskinaren arabera proposatutako garbiketa egutegia ere sartu beharko da.

Inolaz ere ez da sartuko gutun-azal honetan proposamen ekonomikoa edo era automatikoan zenbatu daitezkeen adjudikazio irizpideei dagokien beste edozein datu, horiek guztioriek "C" gutun-azalean sartu behar dira. Horietako daturen bat "B" gutun-azalean sartzeak dokumentu horiek ez baloratzea ekarriko du, eta beraz, bakarrik automatikoki balora ezin diren esleipen-irizpideei dagozkien puntuak emango zaizkio.

3.- "C" GUTUN-AZALAREN azpiztitulua hauxe izango da: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA", eta ondorengo dokumentuak izango ditu:



Baldintza agiri honen 8.1 atalean aipatzen diren zifretan edo ehunekoetan baloratu daitekeen irizpideari buruzko proposamena sartuko da. Proposamena baldintza agiri honetako II. eranskineko ereduaren arabera egin beharko da.

Gutun-azal honetan ezin dira sartu, inola ere, judizio balioaren menpe (ezin direnak formula bidez ebaluatu) baloratzeko diren esleipen-irizpideei buruzko datuak, horiek "B" gutun-azalean sartu beharko baitira.

Horietako daturen bat "C" gutun-azalean sartzeak dokumentu horiek ez baloratzea ekarriko du, eta beraz, bakarrik automatikoki balora daitezkeen esleipen-irizpideei dagozkien puntuak emango zaizkio.

11.- KONTRATAZIO MAHAIA.

Eskaintzak baloratzeko eta dokumentazio administratiboa kalifikatzeko organo eskuduna Kontratazio Mahaia izango da, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikuluan jasotakoaren arabera jardungo du.

Kontratazio mahaia honako hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Alkatea edo berak eskuordetutako zinegotziren bat.

Mahaikideak: Udal gizarte langilea edo berak eskuordetutako funtzionarioa.

Udal gizarte langilea edo berak eskuordetutako funtzionarioa.

Udal idazkari-kontuhartzailea edo berak eskuordetutako funtzionarioa.

Idazkaria: Udal idazkari-kontuhartzailea edo berak eskuordetutako funtzionario bat.

12.- AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaia epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa («A» gutun-azala) sailkatuko du Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran.

Mahaia, behin aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu, eta hala badagokio, ikusitako akatsak edo ez-egiteak konpondu ondoren, berariaz adieraziko du zeintzuk diren lizitaziorako onartutakoak, zeintzuk baztertutakoak eta bazterketaren arrazoiak.

Publikoa ez den ekitaldian, onartutako lizitatzailen "B" gutun-azala irekiko da (formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak), eta aurkeztutako dokumentuen zerrenda irakurriko da. Ondoren, ekitaldia amaitutzat emango da.

Ondoren, "B" gutun-azalen edukia bidaliko da, udaleko dagokion teknikariak formula bidez ebaluatu ezin diren esleipen-irizpideei buruzko txostena egin dezan. Hala ere, erabaki-proposamena egiteko beharrezkotzat jotzen diren txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango dira.

Eskatutako txostenak jaso ondoren, Kontratazio Mahaia eratuko da, ekitaldi ez publikoan, eta txostenak baloratuko ditu eta lizitatzaille bakoitzari eman beharreko puntuazioari buruzko erabakia hartuko du.

Kontratazio Mahaia, jendaurreko ekitaldian, lizitatzaille bakoitzak lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du, eta onartutako proposamenen, baztertutakoen eta ez onartzeko arrazoiari berri emango du. Ondoren, "C" gutun-azala irekiko da (formulen bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak).

"C" gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoa Eskoriatzako Udalaren kontratatzailearen profileen adierazitako tokian eta egunean egingo da.

Kontratazio Mahaia beharrezkotzat jotzen badu, erabaki dezake "C" gutun-azalak zerbitzuaren



ardura duen udal-teknikariari bidaltzea, aztertu eta formula aritmetikoen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko txostena egin dezan.

Kontratazio mahaiak kontratua esleitzeko proposamena egingo dio Alkatetzari.

13. EMAKIDA ESLEITZEA.

Emakidaren esleipena gehienez ere hiru hilabeteko epean egingo da proposamenak irekitzeko egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota esleipena egin gabe, lizitatzailleek beraien eskaintzak kendu ahal izango dituzte.

Esleipena beti eman beharko da, baldin eta aurkeztutako eskaintzetako batek baldintza agirian eskatutako baldintzak betetzen baditu; kasu horretan, ezin izango da lizitazioa esleitu gabe utzi.

Hala ere, SPKLren 152. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, kontratazio-organoak, esleipena eman aurretik, kontratua egiteari uko egin ahal izango dio interes publikoko arrazoiengatik, edo izapidetutako prozeduran atzera egin ahal izango du, baldin eta prozedura horrek zuzendu ezin diren akatsak baditu.

Kontratuaren esleipena arrazoitua izan beharko da beti, lizitatu dutenei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Mahaiaren proposamena ikusita, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailari errekerimendua egingo zaio, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epean honako hauek egiaztatzeko agiriak aurkezteko:

a) Nortasun Agiria, lizitatzailleak bere izenean jardunez gero. Beste pertsona edo entitate baten ordezkari jardunez gero, Nortasun Agiria eta ahalordetze eskritura.

b) Lizitatzaila pertsona juridikoa denean, eraketa edo, hala dagokionean, aldaketa eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik eta identifikazio fiskaleko kodea, inskribatzea derrigorrezkoa denean aplikatu dakioken merkataritza legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztu beharko da jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzailaren jardura zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, dagokion erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie edo zinpeko aitortza edo ziurtagiria aurkeztu ezar daitezkeen Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzeko egiaztagiriak.

d) Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan, kontratuaren helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen egiaztagiria. Egiaztagiria aurtengo ekitaldikoa bada, alta aurkeztu beharko da; eta gainontzeko kasuetan, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren azken ordainagiria. Bi kasuetan zerga horri dagokion matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

e) Lizitatzailaren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak.

e.1 Finantza eta ekonomia kaudimena kreditatzen duten dokumentuak.

Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru-poliza baten bidez egiaztatuko da, kontratua gauzatzean ondasunei edo hirugarrenei sor dakizkiekeen kalte-galerei erantzuteko, eta arrisku horiek babesteko estaldura nahikoa duela eta dagokion prima ordainduta duela egiaztatu beharko du. Zehazki, ustiapeneko eta patronaleko erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat eskatzen da, gutxienez 300.000 euroko kapital aseguratuekin.



e.2 Kaudimen tekniko eta profesionala honela egiaztatuko da:

Elikagaiak manipulatzeko txartela eduki beharko da.

f) Behin betiko bermea (600 €) jarri izanaren ziurtagiria.

g) Zerbitzuari atxikiko zaizkion langile guztien zerrenda eta horien euskara-mailari buruzko agiriak.

Maila egiaztatzeko agiririk ezean, gutxienez langiletako batek Udalak horretarako deitzen duen proba gainditu beharko du. Azken kasu horretan, proba hori egiteko eskabidea aurkeztu beharko da, IV. eranskinean jasotako ereduaren arabera, enpresak errekerimendua jaso eta hurrengo 3 egun balioduneko epean.

Esleipena lehen aipatutako hamar eguneko epea amaitu ondorengo 5 egun baliodunetan egingo da, betiere, lizitatzailerak lehen aipatutako dokumentazioa aurkeztu badu eta behin betiko bermea jarri.

Adierazitako epean errekerimendua behar bezala ez betetzeagatik esleipena egitea bidezkoa ez denean, beste deialdi bat egin baino lehen, Administrazioak beste esleipen bat egin ahal izango die hurrengo lizitatzailerari edo lizitatzailerei, haien eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, betiere hori posible bada eta esleipendun berriak adostasuna eman badu. Kasu horretan, hamar egun balioduneko epea emango zaio esleipendun berriari arestian adierazitakoa betetzeko.

SPKLaren 152.2. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, kontratazio organoak kontratua burutzeari edo esleipenaren aurretik jardunbide honi uko egiten badio, lizitazioak lizitatzailerei eragindako gastuen konpentsazioa finkatuko du Administrazioak, lizitatzailerei entzun eta horiek gastuak behar bezala justifikatu ondoren.

Aurkeztutako proposamenak, onartutakoak zein zabaldu gabe baztertutakoak edo zabaldu ondoren baztertutakoak, espedientean artxibatuko dira. Kontratua esleitu ondoren eta errekurtsioak jartzeko epea amaituta inolako errekurtsorik jarri gabe, proposamenei atxikitako dokumentazioa interesdunen esku geldituko da.

Dokumentazioa interesdunen esku jartzen denetik hilabete igaron ondoren, eta inork ez badu jaso dokumentazio hori, Administrazioak suntsitu ahal izango du lizitazioan parte hartutako pertsonak edo enpresek aurkeztutako dokumentazioa.

Kontratua lizitazioaren baldintzekin bat datorren administrazio-agiri batean formalizatuko da, eta horretarako udaletxera jo beharko du lizitatzailerak.

Kontratua ez formalizatzearen arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, berandutzeak eragindako kalte eta galerengatik ordainduko zaio emakidadunari.

14.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Kontratua lizitazioaren baldintzekin bat datorren administrazio-agiri batean formalizatuko da, SPKLren 153. artikuluan jasotakoaren arabera, eta horretarako udaletxera jo beharko du lizitatzailerak.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

15.- KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Kontratu honetarako, SPKL-eren 62. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua egikaritzeko arduradun izendatzen da Eskoriatzako Udaleko 1 gizarte langilea.

16.- KONTRATUA EGIKARITZEA.



Kontratua emakidadunaren arrisku eta menturapean gauzatuko da, SPKLren 197. artikulua arabera.

Kontratua baldintza agiri honetako baldintzen eta espedienteari erantsitako zehaztasun teknikoen arabera gauzatuko da Administrazioaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean, eta ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabili ahal izango ditu.

Emakidadunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz Administrazioak uste badu kolokan dagoela kontratuak behar bezala aurrera egitea, kontratua behar bezala burutzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko agindu ahal izango du.

17.- EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK.

17.1.- Hizkuntza betebeharrak.

1.- Emakida honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua.
- Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta hori garatzen duten arauak.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko.
- Eskoriatzako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, 2025eko martxoaren Osoko Bilkuran onartua.

2/2016 Legeak, bere 7.8 artikuluan, eskumena aitortzen die udalei zehar-kudeaketa moduan ematen diren zerbitzuen kontratuetan hizkuntza klausulak sartzeko helburu honekin: udalari exijitu ahal zaizkion hizkuntza baldintza beretan ematea zerbitzua.

Lege horrek ezarritakoarekin bat etorritik, 179/2019 Dekretuak, bere 36.3 artikuluan, xedatzen du Euskadiko toki-entitateek hizkuntza bien ofizialtasunaren araubidea betearaziko dutela kontratu publikoetan, eta, kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak ezarriko dituztela administrazio-baldintza partikularren agirietan.

36.8 atalean, gainera, herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, haxe bermatu beharko dela zehazten du:

a) Enpresa esleipendunak hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri beharko ditu lanpostuetan. Alderdi hori kontratuko administrazio-baldintza partikularren agirietan egongo da jasota.

2.- Horrenbestez, kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira. Edonola ere:

- a) Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.
- b) Enpresa esleipendunak hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri beharko ditu herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten lanpostuetan (tabernaria, zerbitzaria...). Zehaztasunak, baldintza teknikoetan.

3.- Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntza araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak udalaren lan hizkuntzaren arabera izango dira, hau da, euskaraz edo ele bietan.

4.- Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena: Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen udal arloak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan.

5.- Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren



gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

17.2.- Emakidadunaren eskubideak eta betebeharrak.

Kontratu hau lan arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta lan-segurtasun eta -osasun arloan indarrean egon eta aplikagarri diren lege, arau eta hitzarmenak betetzearen menpe dago.

Emakidadunaren kontura eta kargura, eta ez beste inorenena, izango dira bere zerbitzura dauden langileak kontratatzea eta haien prestakuntza. Eskoriatzako Udalak ez du inolako harreman juridikorik izango emakidadunaren zerbitzura dauden langileekin, baldintza agiri honen xede den kontratuaren indarraldian zehar, ezta hura amaitzean ere.

Kontratua esleitu ondoren langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia ematera behartuta egongo da emakidaduna.

Emakidadunak, kontratuaren egikaritzeak dirauen bitartean, aplikatzekoa zaion lan hitzarmenean jasotako soldata ordaindu beharko dio langile bakoitzari, dagokion kategorian profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata inolaz ere ezingo da izan hitzarmenean jasotakoarena baino txikiagoa.

Baldintza honetako betekizunak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira SPKLren ondorioetarako, eta horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea eragin dezake, aipatutako legearen 211. f) artikulua arabera.

17.3.- Berdintasuna. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko eskubideak eta betebeharrak.

Emakidadunak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak bete beharko ditu.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistari Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Emakidadunak komunikazioa modu ez-sexistan eta inklusiboan egingo du dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan.

Beste neurri batzuei kalterik egin gabe eta berdintasunaren arloan indarrean dagoen legeriaren arabera, emakidadun izendatutako pertsona juridikoak, bere estatus juridikoa edozein dela ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatu beharko du nahitaez, eta arreta berezia jarri beharko du soldata-diskriminaziorik ez egiteko.

50 langile baino gehiagoko enpresek berdintasun-plan bat dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Plan horretan, batetik, lortu beharreko berdintasun-helburu zehatzak eta helburu horiek lortzeko hartu beharreko estrategiak eta jardunbideak finkatuko dira, eta, bestetik, finkatutako helburuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema eraginkorrak ezarriko dira.

Klausula honetako betekizunak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira SPKLren ondorioetarako, eta ez betetzeak kontratua suntsiaraztea eragin dezake, aipatutako legearen 211. f) artikulua arabera.

18.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

a) Jarduera eta ordutegiak.

Eskoriatzako Udalak emakidadunaren esku jarriko ditu tabernako instalazioak, kontratua sinatu eta hurrengo 10 egunen barruan. Instalazioa, zehazki, taberna-aretoko jarduerarako erabiliko da. Udalak



ustiapenerako emandako lokala, instalazioak eta ekipamendua kontratua amaitzean itzuliko zaizkio Udalari. Emakidadunak egiten dituen obrak edo instalazioak ere tokiko jabari publikora pasatuko dira kontratua amaitzean.

Arau orokor gisa, taberna urte osoan egongo da irekita, baldintza teknikoen agirian ezarritakoaren arabera, eta, gutxienez, bertan ezarritako ordutegian.

b) Emakidadunaren eskubideak.

Lagatako ondasunak zerbitzuaren funtzionamendurako behar den moduan erabiltzea.

TABERNA-ARETO bat modu pribatiboan erabili eta ustiatzeko emakidaren esleipendun izateari dagozkion gainerako eskubideak, agiri honetan berariaz zehaztu ez badira ere.

c) Emakidadunaren funtsezko betebeharrak.

1.- Emakidadunak, baldintza tekniko eta administratiboetan ezarritako garaian, orduetan eta tokietan egin beharko ditu kontratuan ezarritako lanak, eta Administrazioak kontratua interpretatzeko emakidadunari emango dizkion argibideei jarraiki. Horretaz gain, Administrazioaren berariazko baimenik izan gabe, ezin izango dio emakida osoa edo emakidaren zati bat beste pertsona bati laga.

2.- Gipuzkoako Lurralde Historikoan zergadun gisa alta emanda egotea eta zerga-betebeharrak egunean izatea, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga barne. Indarrean dagoen laneko eta Gizarte Segurantzako araudia betetzea, alderdi guztietan. Kontratatu eta zerbitzura atxikitako langileek ez dute inolako lan-harremanik izango Eskoriatzako Udalarekin.

3.- Emakidadunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

4.- Emakidadunak behar besteko giza baliabideak izan beharko ditu zerbitzua modu egokian eskaintzeko, langile horiek sortutako kostu guztiak bere gain hartuz, eta inondik inora ez dute Udalarekin lan loturarik edo lotura administratiborik izango. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango enpresaren eta bere pertsonalaren arteko harremanetatik sortutako ardurengatik.

5.- Langileak kontratatatu behar izanez gero, emakidadunak bere gain hartuko du itunpeko prestazioa emateko erabiltzen dituen langileen enpresaburu-izaera, eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako formularen bat erabili beharko du kontratuak automatikoki suntsiarazteko ustiapena azkentzen denean baldintza-agirian aurreikusitako edozein arrazoren ondorioz.

6.- Irratien edo antzeko tresnen erabilera doitu egin beharko da, hiritartasun-arauen barruan, erabiltzaileen eta, oro har, jendearen erosotasunagatik, betiere indarrean dagoen legerian ezarritako mugak errespetatuz. Berariaz debekatuta dago lokaletik kanpo musika-aparaturik edo antzekorik jartzea.

7.- Eskoriatzako Udalaren jarraibideak betetzea hondakinak ateratzeari dagokionez. Era berean, gordailuen, upelen, botila hutsen eta abarren zerbitzu osagarriak egoera onenean eduki beharko ditu. Zerbitzu horiek tabernaren esparruaren barruan egon beharko dute, horretarako prestatutako lekuan, eta ez dira jendeak ikusteko moduan egongo.

8.- Ustiapenaren xede den lokala eta instalazioak behar bezala eta kontserbazio-egoera onean mantentzea, eta horretarako beharrezkoak diren konponketa guztiak bere kargura izatea, betiere matxurak edo hondatzeak jardueraren funtzionamendu normalaren ondorio badira. Emakidadunak udal zerbitzu teknikoei jakinarazi beharko die, idatziz, instalazioetan gertatzen den edozein irregulartasunen berri, eta, oro har, higiezinaren narriadura eragiten duen edozein irregulartasunen berri ere eman beharko die. Horrek ustiaketa itzuli behar izatea eragin dezake, baldin eta, gertatutako anomalia motaren arabera, emakidadunaren erantzukizuna egiaztatuta geratzen bada.

9.- Kontratua indarrean dagoen bitartean hondatzen diren tabernako zerbitzuko materialak eta tresnak birjartzea eta konpontzea, bai eta lokalak, taberna-aretoko instalazioak eta komunak garbitzeko behar diren garbiketa-tresna eta -produktuengatik gastuei aurre egitea ere (komuneko papera eta gainerako produktu kontsumigarriak barne).



Erabilera desegokiaren ondorioz, emakidadunaren erantzukizuna izanda, hondatutako makineria eta altzariak birjarriko direla bermatzeko, gastu horiek estaliko dituen aseguru-poliza izan beharko du egunean. Horretarako, ustiapeneko eta patronaleko erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat sinatu eta ordainduko du, gutxienez 300.000 euroko kapital aseguruarekin.

Kontratuak indarrean dirauen bitartean Udaleko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztuko ditu kontratatutako polizen kopiak eta ordaindutako ordainagiriaren egiaztagiriak.

10.- Udalaren ikuskapen teknikoa eta ekonomikoa edozein unetan baimentzea, taberna-aretoaren funtzionamendua baldintza agirian eta indarrean dauden legezko xedapenetan aurreikusitakoarekin bat datorrela egiaztatzeke.

11.- Kontratuaren xede den jarduera zergapetzen duten estatuko, autonomiako eta tokiko zerga guztiak emakidadunak ordaindu beharko ditu.

12.- Elikagaiak Manipulatzeko Titulua izatea zerbitzua ematen hasi aurretik.

13.- Ur eta zabor gastuak ordaintzea.

14.- Tabernako altzariak eta makinak (mahaiak, aulkiak, gortinak, makinak...) mantentzeko eta konpontzeko gastuak ordaintzea.

15.- Esleipendunak arretaz bete beharko du zerbitzua, Udalak horri buruz ematen dituen arauak kontuan hartuta, eta, era berean, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun- eta elikagai-arloko arau edo xedapen guztiak bete beharko ditu.

16.- Jubilatuen etxean zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztiak txukun eta behar bezala jantzita egongo dira, eta jubilatuen etxeko juntak edo Gizarte Zerbitzuek horri buruz emandako jarraibide guztiak bete beharko dituzte. Instalazioen erabiltzaileekiko tratu adeitsua eta errespetuzkoa izan beharko dute.

17.- Esleipendunak arauzko baldintzak betetzen dituen pertsona orori utzi beharko dio zerbitzua erabiltzen.

18.- Udalari itzuli beharreko ondasun edo instalazioak ez besterentzea edo kargatzea.

